

Monotonía

Peru Iparragirre

Hiru pertsonaiaren arteko harreman-triangetua dago *Hirutter* (Erein, 2017) nobelaren oinarrian. Harreman horren bitartez sare sozialen eta intimitatearen arteko erlazioa aztertzen du Nerea Arrienek (Lekeitio, Bizkaia, 1976) bere lehen nobela. Ines Etxart ingeniariak Gari Mateo mekanikariarekin eta Martin Lasa kimikari intelektualarekin dituen harreman sexual-afektibo inguruan dago erakia liburua. Arrienek aurkezpenean esandakoaren arabera, haien sare sozialetan estereotipoak agertzen dituzte pertsonaiok, nobela zehar hausten joango direnak, *on line* ematen den itxura ez baita, sarritan, itxura baino gehiago izaten. Pertsonaia hauengana hurbiltzea norbait sare sozialen bidez ezagutzaren antzekoa da azken batean.

Atal laburrez osatuta dago liburua, atal bakoitzean pertsonaia bakoitzak gertakarien bere bertsioa ematen duelarik lehen pertsonan. Liburuaren hasieran ematen da aditzera psikoaalista bati zuzentzen zaiola Inesen kontakizuna. Inesi zuzendutakoak dira, aldiz, Gariren eta Martinen bakarrizketak. Testu-zati laburragoak ere tartekatzen dira hiru bakarrizketekin: pertsonaien



'Hirutter'

Idazlea: Nerea Arrien. **Argitaletxea:** Erein.

sare sozialetako profilak eta elkarren arteko mezuak, txioak... Egitura zatikatua nahasgarria iruditu zait batzuetan eta kontakizunean esan gabe uzten diren hutsuneak betetzeko marko zehatzago baten falta sumatu dut. Ines, Gari eta Martinen arteko harreman korapilatsuak gain, narrazioaren denbora-saltoek ere despistatu naute, hasiera aldean batez ere.

Pertsonaia hain desberdinek, euren muturreko irudi estereotipatueta oso definituak, tonu eta kontra bera erabiltzeko ere behin eta berriro aterarazi nau istoriotik. Idazkera oso markosera berezi bat sortzen du, baina monotonoa ere izan daiteke. Gainera, iruditu zait ahots bera eta bakarrarekin ari direla hirurak hizketan, bestelako bereizgarririk gabe, pertsonaien eta, ondorioz, kontakizunaren sinetsagarritasuna zalantzan jarritz.

Pertsonaia nagusien arteko harremanak hartzen du pisu handiena nobela, baina badira inte-

resgarriak iruditu zaizkidan beste istorio batzuk ere, Ines, Gari eta Martinen bizitzetako buruzkoak, haurtzarokoak eta gurasoei dagozkienak batik bat, nobela ia tarterik ez dutenak. Istoriok, pertsonaien garapenerako eta nobelako pasarteak ulertzeko gakoak direnak, pertsonaiek berriak diotenez haien nortasunaren zimenduetan, istorio nagusiari bestelako ekarpenik egin gabe tramak aurrera egiteko makuluak baino ez direlako sentipena izan dut batzuetan.

Azaleko kontakizunaren itxura duena, sare sozialetako den bezala, sakontzen doa amaierara gerturatu ahala, pertsonaiek ere apur bat garatzen doazenez, nahiz eta hirurak norabide berean eta aparteko sorpresarik eman gabe. Hausnarketarako, behintzat, ematen du liburua. Hainbat gai jartzen ditu mahai gainean. Izan ere, gure bizitzaren zati bilakatu dira sare sozialak eta gure bizitza birtualak egiaz dituen ondorioz kontziente izan beharko genuke gutxienez, egunerokotasunaren zurrumbilao erraz galtzen baita norbere buruarekiko perspektiba.



'Limoioondoaren loreak'

Egilea: Lur Gallastegi. **Argitaletxea:** Elkar.

Violeta eta Luna ama-alabak dira liburuko protagonistak. Euskal Herrian bizi dira, baina amona gaixotzean, Violetak ustekabean sartzerira bidaiatu behar du, Nikaraguara. Bitartean, Nikaraguako amona ezegunak berari propio idatzita utzitako koaderno irakurriko du Lunak, eta bere jatorria ezagutuko du.



'Arditutakoak'

Idazlea: Mikel Begoña. **Ilustratzailea:** Adur Larrea. **Argitaratzailea:** Bertsolari Aldizkaria.

Ameriketako euskal artzainen inguruko komiki-istorio bat plazaratu du *Bertsolari* aldizkariak. *Arditutakoak* du izenburua, eta Mikel Begoña historialari eta liburuzainak ondu du gidoia. Ilustrazioak, berriz, Adur Larrea marrazkilarik egin ditu.

Esan gabe, badioena

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburu honek igarkizunak ditu. Zehazki, 400 igarkizun, 30 *igarkilima*, 10 *olerkizun*, eta opari gisako beste hiru ale 8. eta 139. orrialdeetan. Horiek guztiek denera egiten dute lauhema eta berrogeita hiru.

Liburuak egitura matematikoa du, eta igarkizun bakoitza hurrenkera zenbakiarekin dator. Amaieran erantzunen aurkibideak daude, hurrenkerearen arabera, gaika, eta berezientzat (*igarkilimak* eta *olerkizunak*) beste bat.

Igarkizun guzti-guztiak hitz neurtuan eta errimarekin eskainiak datoz. Gainera, hizkuntzarekin jolastan dira, hoskidetasuna, esanahi ugartasuna, kakofonia, eta halakoez baliaturik, atarikoan idazleak berak iragarzen digunez.

Asmakizunetako askotxo sinpleak dira, batzuk oso sinpleak, eta tarteka erronka handitxoagoekin topatzen gara. Guztietan, estetika ariketa interesgarri bat topatuko dugu. Ez alferrik, Euskadi literatur saria bitan irabazi izan du egile berak, poesia liburu barenarekin, eta badu oso maitatua den beste igarkizun bilduma bat ere, milurtekoarekin batera plazaratu zuena: *Auskalo!* (Pamiela, 2001).



'Nik papaita, zuk papaita'

Idazlea: Xabier Olaso. **Ilustratzailea:** Agurtzane Villate. **Argitaletxea:** Pamiela.

Nora joan da amatxo?

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero


Sekulako gogoa nuen album hau euskaraz irakurtzeko. Aspaldi batean ezagutu genuen ingelesezt, eta gurera noiz iritsiko zain nengoen. Egia esan, jatorrizkoarekin arazo askorik ez dut (dugu) izan, haur txikienei irakurtzeko delako, eta, jakina, eurrek letrak ulertzen ez dituztenek, bat-bateko itzulpenarekin ongi moldatzen nintzen (ginen).

Testua ulerterraza eta intuitiboa da, irudiek adierazten duten egoerari hitzak jartzea oso erraza egiten da, baina, jakina, eroso-goa da irakurtzea itzulpena baino.

Ezagutzen ez zenutenoi laburtzekotan, liburuxko honek (kasu, tamainaz txikia ez da, 27x22 cm; zabaldua dagoenean metro erdiko zabalera hartzen du!) hiru hontz kumeren estualdia konta-

tzan du, gauaren erdian esnatu, eta euren amatxo ez dagoela konturatzen direnekoa. Antzeko egoera bizitzaren duten haurren emozioak azaleratzen ditu, eta irakurraldi hunkibera sortzen du.

Irudiak ikaragarri eraginkorrak dira, testua labur bezain zuzena (itzulpenean testua zamatu xamar dagoela iruditu zait, baina hau nire apeta izan liteke), eta bien konbinazioan bost minutuko haur-thriller borobil bat erdiesten dugu.



'Hontz kumeak'

Idazlea: Martin Waddell. **Ilustratzailea:** Patrick Benson. **Itzultzailea:** Manu Lopez Gaseni. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.

musika dantza
donostiaeskola.eus

DEIALDIA, 2018. URTEAN CURRICULUMAK AURKEZTEKO EPEA ZABALDU ETA DONOSTIAKO UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLARAKO ZEIN HITZARTUTAKO BESTE BATZUETARAKO IRAKASLEENTZAKO LAN POLTSAK HANDITZEKO

Deialdi honen ondorioz poltsan sartzen direnak, hautaketa-prozesua amaitzen den unean dagokion zerrendan sartuko dira, lan-poltsa osatzen dutenen atzean, zero puntuazioarekin eta hautaketa-prozesuko emaitzen hurrenkerearen arabera, hain zuzen.

Eskabideak aurkezteko epea 2018ko otsailaren 18tik martxoaren 16era (biak barne)

Deialdiaren oinarriak
www.donostiaeskola.eus
 webgunean daude